



## J.2 IKASTAROA

### KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA ENPRESA PRIBATUEK INTERES OROKORREKO ZERBITZUAK EGITEA

**Zuzendaria:** Iñigo Lamarca Iturbe.  
*Arartekoa. Vitoria-Gasteiz*

**Helburuak:** Gaur egun, administrazioan ohikoa da eta gizartean onartuta dago enpresa pribatuek pertsonentzat oso garrantzitsuak diren zerbitzu orokorrak eta publikoak egitea (elektrizitatea, ura, telefonia, garraioa, e.a.), kudeaketa-sistema ezberdinak erabiliz.

Interes orokorreko zerbitzuak pribatu bihurtzeak ez luke babes-galerarik ekarri behar, oinarritzko eta funtsezko eskubideak baitira eta, urratzen badira, herritarren bizi-kalitatean eragiten baitute.

Horren haritik, Arartekoak eztabaida piztu nahi du arazo horren gainean –interes orokorreko zerbitzuen ikuspegi teorikotik abiatuta–, baita ere zerbitzuen erabiltzaileek egindako salaketen eta haien eskubideen gainean. Era berean, bi gauza aztertu nahi dira: batetik, eragindako administrazioek beren titulartasuneko zerbitzuak nola egiten diren benetan eta eraginkortasunez kontrolatzeko duten betebeharra; eta, bestetik, konprometitutako enpresek berek barne-prozesuak autoerregulatzeaz eta autokontrolatzeaz duten ikuspegia, kontsumitzaileen eskubideak babestuko direla bermatzeko.

Arartekoarekin elkarlanean

Balio akademikoa: 10 ordu

Hizkuntza ofiziala: gaztelania



## EGITARAUA

### 2012ko uztailaren 6a. Miramar jauregia. Donostia-San Sebastián

- 9:00 h Agiriak ematea
- 9:10 h Aurkezpena  
**IÑIGO LAMARCA ITURBE**  
*Arartekoa. Vitoria-Gasteiz*
- 9:30 h Lehen ponentzia. Ikuspegi juridikoa: Zuzenbide publiko eta pribatuaren mekanismoak kontsumitzaileen eskubideak zaintzean. Espainiako eta Europako araudia.  
**CLARA ASÚA GONZÁLEZ.** Zuzenbide Zibileko katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean.
- 10:15 h Bigarren ponentzia. Ikuspegi ekonomikoa eta enpresakoa: kompetenziarentzat irekitako merkatuetan dagoen interes orokorra.  
**M.ª TERESA COSTA CAMPÍ.** Ekonomiako katedraduna Bartzelonako Unibertsitatean. Energiaren Batzorde Nazionalako presidente ohia.
- 11:00 h Solasaldia
- 11:30 h Etenaldia
- 12:00 h Mahai-ingurua: Administrazioaren kontrola eta kontsumo arloko jarduera egokiak.  
**ANA MARÍA COLLIA POSADA.** *Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Erakunde*ko zuzendaria.  
**NEREA HERRÁN MURUAGA.** *Kontsumitzaileei arreta emateko udal bulegoaren arduraduna Barakaldon.*  
**AURELIO CAMPO IGLESIAS.** *Euskalteleko Aholkularitza Juridikoko eta Kabinete Teknikoko zuzendaria.*  
**ANA RODRÍGUEZ RUANO.** *Farapi-ko partaidea eta ikertzailea Arartekoak erabiltzaileen eskubideak ikertzeko asmoz 2011. urtean emandako bekan: "Erreklamazioaren ibilbideak: kontsumo kontzientziatuaren bidetik".*
- 13:20 h Solasaldia
- 13:50 h Jardunaldiaren bukaera

Formatu malgua eta parte hartzeko aukera ematen duena erabili nahi da, elkarrizketa eta eztabaida ahalbidetzeko.

Hartzaileen artean, unibertsitateko ikasleez gain, beste hauek ere sartzea proposatzen da: herri-administrazioetako langileak, gizarte-erakundeetako, kontsumitzaileen elkarteetako, kaltetutako pertsonen elkarteetako, sindikatu eta talde politikoetako partaideak.